

## BAREMOA

Jarraian emandako argibideak honako arau hauetan oinarrituta daude:

- Otsailaren 12ko 2014/50 EBAZPENA, Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Unibertsitateko zuzendari nagusiak emana non arautzen baita 2014/2015 ikasturtean funtsa publikoek ordaindutako Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan haurrak hartzeko prozedura.
- Martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretua, non arautzen baita Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako lehen zikloa. Aipatutako dekretuak ezarri zuen 1. ataleko 12. artikuluan Hezkuntza Departametuak arautuko duela haurrak hartzeko prozedura funtsa publikoek ordaindutako ikastetxeetan, berdintasun baldintzetan egin dadin bermatzeko.
- Aurrekoa aplikatzeko eta 2/2006 Lege Organikoak eskolatzeari buruz ezarritakoa kontuan hartuta,

Per cápita Errenta		Eskolatzea			Jantokia	Eskolatzea+jantokia		
		Jardunaldi mota				Jardunaldi mota		
		Osoa (7 h.)	Murritzua (6 h.)	Erdia (4 h.)		Osoa (7 h.)	Murritzua (6 h.)	Erdia (4h.)
Mayor de	15.000	240,00	227,00	170,00	95,00	335,00	322,00	265,00
12.400,01	15.000	217,00	204,00	153,00	95,00	312,00	299,00	248,00
10.700,01	12.400	180,00	169,00	125,00	95,00	275,00	264,00	220,00
9.300,01	10.700	150,00	139,00	106,00	95,00	245,00	234,00	201,00
7.980,01	9.300	112,00	107,00	78,00	95,00	207,00	202,00	173,00
6.650,01	7.980	96,00	87,00	66,00	84,00	180,00	171,00	150,00
5,500,01	6.650	69,00	66,00	50,00	84,00	153,00	150,00	134,00
4.500,01	5.500	55,00	52,00	39,00	84,00	139,00	136,00	123,00
Menor o igual a	4.500	41,00	39,00	29,00	84,00	125,00	123,00	113,00

### A).- Gurasoen lan-egoera (gehienez, 20 puntu):

**A.1)** Haurren gurasoak edo legezko tutoreak jarraian adierazten diren egoeretako batean daudenean: **20 puntu.**

- Guraso edo legezko tutore biak lanaldi osoan edo partzialean lanean ari badira.
- Guraso edo legezko tutoreak biak lehentasunezko dedikazioa (behar bezala justifikatuta) eskatzen duten ikasketa arautuak egiten ari direnean.
- Guraso edo legezko tutoretako bat lanaldi osoan edo partzialean lanean ari bada eta bestea lehentasunezko dedikazioa (behar bezala justifikatuta) eskatzen duten ikasketa arautuak egiten ari bada.

**A.2)** Guraso edo legezko tutoretako batek lanaldi osoan edo partzialean lan egiten duenean edo lehentasunezko dedikazioa behar duten ikasketak egiten ari denean, eta bestea lana bilatzen ari denean: **15 puntu**.

**A.3)** Bi gurasoak lan bila ari direnean: **10 puntu**.

**A.4)** Lan-egoera kontzeptuari buruzko zehaztapenak:

- Ez da kontuan hartuko Gizarte Segurantzaren edo, horrela dagokionean, Ekonomia Jardueren Gaineko Zergan izena eman gabe egindako lana.
- Lanpostu finkorik izan gabe, seme-alaba baten jaiotzagatik lanean ez egotea; hau da, ordezkoen zerrenda eta antzekoetan egotea ez da eszedentziatzen hartuko.
- Baremazioaren ondorioetarako, ezintasun iraunkor osoa, ezintasun absolutua eta baliaezintasun handia lanaldi osokoaren edo lanaldi partzialaren baliokidetzat hartuko dira.
- Ikasketak baloratzeko, ikasketa araututzat hartuko dira titulu akademiko ofizialak eskuratzeari begira egiten direnak: DBH, Batxilergoa, Lanbide Heziketa, Unibertsitateko titulazioak, etab. Halaber, lehentasunezko arduralditzat joko da interesduna matrikulatuta dagoenean, dagokion ikasketa-planaren arabera, ikasturte osoko kredituen edo ikasgaien %80n, gutxienez.

**A.5)** Lan bila egotea kontzeptuari buruzko zehaztapenak:

- Ulertuko da pertsona bat lan bila ari dela lan eskatzaile gisa izena emanda dagoenean Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren edozein bulegotan edo baimendutako Enplegu Agentzia batean.

## **B) Familiaren osaera, gehienezko puntuazio metagarria: 15 puntu**

### **B.1. Motak:**

- Eskola berean bi seme-alabarentzat edo gehiagorentzat ikaspostua eskatzen bada (ikaspostuaren erreserba barne): **15 puntu**.
- Bi seme-alaba adingabe dituzten familien kasuan: **puntu 1**. Hirugarren adingabetik aurrera, **puntu 1 gehituko** da seme-alaba bakoitzeko, eta **beste puntu 1** 6 urtetik beherako seme-alaba bakoitzeko.
- Familia unitateko edozein kidek %33ko edo gehiagoko urritasun fisiko, psikiko edo zentzumenekoa aitortua badu: **4 puntu**.

### **B.2. Familia osaerari buruzko oharrak:**

1.-Familia unitatearen zati dira gurasoak edo adingabearen zaintza eta arduraren zaindariak, seme edo alaba adingabeak (salbu eta, gurasoen baimena izanda, haiekin bizi ez direnak) eta judizialki ezgaituta eta guraso-aginte luzatuaren edo birgaituaren mende dauden seme-alaba adindunak. Familia harreraren diren haurrak familia unitateko kideatzat joko dira ondorio guztietarako.

2.-Banantze edo dibortzio kasuetan, ez da kontatzeko kideatzat joko adingabearen zaintza eta ardurarik ez duen aita edo ama.

### **B.3. Zehaztapenak:**

- "6 urtetik beherako seme-alabak" zenbatzeko, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera jaiotako seme-alabak hartuko dira kontuan.
- "Bi anai-arrebarentzat edo gehiagorentzat ikaspostua eskatzea deialdi berean" kontzeptuagatik emandako puntuazioa galduko da eskatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik matrikula egiten ez bada.
- Familia harreraren diren hurrek, betiere egoera hori behar bezala frogatuta, ikastetxean anai-arrebak izateagatik ematen den puntuazioa lortu ahalko dute, familia hartzaileak eskatutako ikastetxean seme-alabaren bat baldin badu eskolatuta.

<b>C) Familia unitatearen urteko errenta mailak, gehienezko puntuazio ez metagarria: 4 puntu</b>
--

#### **C.1. Errenta tarreak:**

Gehienez, LGS halako 1,7: **4 puntu.**

Gehienez, LGS halako 2,8: **3,5 puntu.**

Gehienez, LGS halako 3,9: **3 puntu.**

LGS halako 3,9 baino gehiago: **2 puntu.**

#### **C.2. Errenta mailei buruzko zehaztapenak:**

1. Familia unitatearen errentatzat hartuko da 2012. urtean justifikatutako banakako errenta edo sarrera guztien batuketa (gurasoen edo legezko tutoreenak). Familia unitatearen urteko errenta justifikatuko da Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko 2012. urteko Zerga-Aitorpena aurkeztuz.

2. Banako errenta da kalkulatzeko modua: zerga oinarriaren zati orokorra gehi higigarrien kapitalaren etekinen saldo positiboa gehi ondare-eskualdatzeen saldo positiboa, etxebizitza erosteko edo berritzeko jasotako dirulaguntzak kenduta.

Zehazki, errentari buruzko kalkulua honela egingen da: 507., 8810. eta 8808. laukien batuketa, ken 708. laukia (Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko 2012ko ekitaldiko Zerga-Aitorpena Nafarroako Foru Komunitatean, edo horien baliokideak, Estatuarenean).

3. Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga-Aitorpena egiteko beharrik ez dutenen kasuan, behar ezaren egiaztagiria aurkeztuko da, Nafarroako Gobernuak eginga, baita lan bizitzaren agiria edo/eta 2012ko familia-sarrerak ezagutzeko beharrezko agiriak ere.

4. Banantzearen edo dibortzioaren kasuan, haurraren zaintza eta ardura dituen gurasoaren errenta-aitorpena edo diru-sarrerak hartuko dira aintzat.

Bigarren atalean ezarrita bezala kalkulaturako sarrerei seme-alaben elikagaiengatik ezarritako urteko diru-kopurua kenduko zaie, zaintza eta ardurarik ez duen gurasoak ordaintzen duena, urteko diru-kopuru hori hitzarmen arauemaileak ezarrita edo epaileak erabakita bada.

**D) Eragin-eremu geografikoa, gehienezko puntuazio metagarria: 20 puntu**

**D.1)** Haurra eta aita/edo ama edo legezko tutoreak 2014ko urtarrilaren 1a baino lehen errolatua egoteagatik eskaeraren xedea den Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko Eskola dagoen herrian edo bere eraginpeko eremu geografikoan den herri batean, **20 puntu**.

**D.2)** Aita, ama edo tutorea lan egiteagatik eskaeraren xedea den Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko Eskola dagoen herrian edo bere eraginpeko eremu geografikoan den herri batean: **8 puntu**.

**D.3)** Aita, ama edo legezko tutorea entitate titularraren Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko eskola batean lan egiteagatik: **5 puntu**.

**E) Bestelako irizpideak.**

Hautatze Batzordeak kontuan hartu ahalko ditu beste egoera pertsonal, familiar edo sozial larri batzuk, betiere behar bezala frogaturik badaude, nahiz eta aurreko ataletan ez egon jasota: **10 puntu, gehienez ere.**

**F) Puntuazioko berdinketa kasuak ebaztea**

Baremoa aplikatzean adin multzo bakoitzeko azken ikasposturako **berdinketa** suertatuko balitz, ondoko irizpideak aplikatuko dira, bata bestearen ondoren:

- Familiaren per capita errenta txikiena.
- Hurrek neba-arrebak izatea Eskolan.
- Berdinketak jarraituz gero, Hautapen Batzordeak egindako zozketaren bidez ebatziko da.

**G) Beste udalerrri batzuetako auzoak onartzea.**

Haur Eskolaren jabea den Udalak ahalmena dauka beste udalerrietako haurrak ez onartzeko, familiek idatziz ez badute adierazten bizi diren Udalak edo familiak berak dagokion moduluaren ehunekoa ordainduko diola Udal jabeari.

**Ikastetxe bakoitzeko ikaspostu hutsen kopurua eta elkartzeko modalitatea desberdinak izanen dira familien eskaeraren eta Hezkuntza Departamentuak egiten duen plangintzaren arabera.**